



SEGURAKO UDALA



Euskara eta kirola

Arratsaldeon.

Dakizuenez Euskaraldian murgildurik gaude Azaroaren 23tik Abenduaren 3ra. Euskaraldiaren helburua dauzkagun hizkuntz ohiturak euskararen aldera aldatzea da.

Kirolean ere, beste hainbat eremutan bezela, sarritan erdera izaten da hizkuntza nagusia arrazoi ezberdinak medio. Hori horrela, euskaraz eta kirolaz hausnartzea

interesgarria iruditu zaigu Seguran Euskaraldia sustatzen gabiltzan batzordean.

Hitzaldi bat antolatu dugu datorren ostegunean (Azaroak 29), 18:30ean Ardixarran. Hitz hartzaileak, Koikili Lertxundi (futbolari ohia, eta gaur besteak beste, kirol taldeetan euskara planak egiten diharduena) eta Enekoitz Telleria (Berriako kazetaria, kirol sailean aritua eta gaur egun zuzendariordea) izango ditugu.


Kirolean euskarak duen presentzia, beraien esperintziaz, kirol taldeetako euskara planez... arituko dira.

Bertan parte hartzera gonbidatuta zaudete eta eskertuko genizueke gonbidapena zuen partaide eta bazkideen artea zabaltzea.

Bertan elkar ikusiko dugulakoan, agu bat.

Osteguna 29, 18:30ean Ardixarran

Enekoitz Telleria
Berria egunkariko kazetaria



Koikili Lertxundi
Futbolari profesional ohia